

Etzi taldea - Ingumarket proiektua

Funtsezko Baliabideak

Hauk dira erabiliko genituzkeen funtsezko baliabideak *Ingumarket* aurrera eramateko:

- Baliabide fisikoak ondorengoak izango lirateke: lan egiteko leku egoki bat (alokaturiko lokal bat, lan egin ahal izateko), sistema informatikoak (telefono bat beharko dugu deiak egin edota jaso ahal izateko, wifi konexioa eta ordenagailuak lankide kopuruaren arabera, mantenimendurako erabiliko litzatekenak) eta oinarrizko bulegoko materiala (hots, mahaiak, aulkiak, fitxategiak, etab).
- Baliabide intelektualak eta giza baliabideak hauk dira: *Ingumarket*-en inguruko ideia eta hobekuntza oro (diseinuari dagokionez, egongo diren enpresak, etab.), komunikaziorako habileziak, patenteak eta marketing eta sare sozialen erabileraren gaineko ezagutza.
- Finantza-baliabideaei dagokionez, hasiera batean, taldekide bakoitzak bertan inbertitu dezakeen diru kantitate zehatz bat jarriko luke (1000€). Beranduago, bakoitzak jarritako dirua berreskuratuko luke. Hala ere, badaezpada irabazietako kapitalaren zati bat gordeko litzateke, enpresak arazoak jasan ahal dituen momentuetarako eta bere garapena finantzatzeko. Gainera, Eusko Jaurlaritzak edota herriko Udalak eskaintzen dituen dirulaguntza bat eskatuko genuke. Mugako egoera batean, bankura jotzeko prest agertuko ginateke, kreditu bat eskatzeko.